

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

Maria Arantzazu Iregui Villar  
Jose Maria Herce Isasmendi  
Leire Urzelai Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Martínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko ekainaren 4an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Merino jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 4 de junio de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste el Sr. Merino.

**1.- Udal Antolaketa Erregelamenduaren aldaketaren hasierako onarpenari EAJ/PNV  
udal taldeak jarritako alegazioei eta Pertsonal eta Gobernu batzordearen  
diktamenari Iker Akizu zinegotziak egindako zuzenketei buruzko erabakiak.**

2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran, Udalbatzarrak Udal Antolaketa Erregelamenduaren aldaketa espedientean jasotako moduan onartzea erabaki zuen hasiera batean.

Erabaki hori jendaurrean jarri zen, eta horren berri 2012ko urtarrilaren 3ko GAOn (2. zenbakian) argitaratutako iragarkian eman zen.

Jendaurrean egoteko epean EAJ-PNV udal taldeak alegazioak aurkeztu zituen.

2012ko martxoaren 20an Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak diktamena eman zuen EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako alegazioei buruz.

2012ko apirilaren 17an Iker Akizu zinegotziak hainbat zuzenketa aurkeztu zituen Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzailearen diktamenaren aurka.

Bertaratutako zinegotzi guztiak jaso dute deialdiarekin batera Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako diktamena EAJ/PNV udal taldeak Udalaren Antolaketa Erregelamenduaren hasierako onarpenari jarritako alegazioei buruz eta diktamen horri Iker Akizu zinegotziak aurkeztutako zuzenketei buruz.

Diktamen biak bototara jarri aurretik, hitz egitea nahi duenari hiza eman dio Alkateak, nahi duena esan dezan.

Urrutia jaunak hartu du hitza. Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako: *Btoa azaldu gura dut. Eta, era berean, kexa bat egin gura dut. Gobernu taldeak erregelamenduaren lehen aldaketa proposatu zuenean, aldaketa plenora ekarri zen eta aldaketa hark idazkariaren bedeinkapen guztiak zituela esan zen, besterik gabe. Gutako bakoitzak nahi izan zuena bozkatu zuen. Hala ere, gero, alegazioak aurkeztu zirenean, batzordea deitu zen egun batetik bestera, deialdiarekin alegaziorik bidali gabe. Horren aurrean gure kexa adierazteko mezu bat bidali ondoren, batzordea 10 egun beranduagorako deitu zen. Beno, kasu egin zitzaigun nolabait, batzordeko eguna aldatu zen; baina, hala eta guztiz ere, batzordea mistoa egin zen, uste zelako beharrezko zela, zirudienez, parte hartze batzordeko kide batzuk ere bertan egotea. Eta batzorde horretarako deialdiarekin batera gure alegazioei buruzko idazkariaren txostena eta erregelamenduaren testua hizkera inklusibora egokitua bidali ziren, alegazioa dagokion batzordean aurrez aztertu gabe. Hau da, alegazioetako bat zen erregelamendua hizkera inklusiboan idaztea, eta horrela idatzita etorri zen, alegazio hori batzordean aztertu aurretik. Alegazio horiek idazkariaren txostena merezi izan zuen dirudienez, eta dena irakurtzeko ohitura txarra dugunez, ikusi dugu txostena egun batetik bestera deitutako batzordea baino lehen egin zela. Horren guztioren aurrean, ez dakigu zer pentsatu, ez dakigu nora eta nola eraman nahi gintuzten batzordera, batzuen gehiengoa aprobetxatuz, edo, beharbada, koordinazio gehiegi ez dagoelako udaleko departamentuen artean. Egia esan, ez dakit bi ondorioetatik zein den okerrena. Eta ondo iruditzen zaigu gure alegazioek idazkariaren txostena izatea, horrela izan behar delako, baina, alegazio, proposamen eta aldaketa guztiak ere izan dezatela. Izan ere, horren guztioren ondoren, Ikerrek bere zuzenketak aurkeztu zituenean ez baitzen txostenik aurkeztu. Horregatik, beste mezu elektroniko baten bidez, idazkariaren txostena eskatu nuen. Bestela, irudituko zitzaigun, horrela iruditu ere, gobernu taldeak ez duela kontu batzuetan herrirako proiekturik, eta kontu teknikoez baliatu behar dela, hori baita idazkariaren txostena, zenbait proposameni erantzuteko. Bestalde, ez dut gura aukera pasatzerik uzterik Iñakiri eta Ikerri esketu gabe izan duten jarrera, hitz egiteko gogoa, prestasuna eta interesa. Horrek bakarrik, besterik gabe, sakonago sartu gabe, uste dut baiezkoa merezi duela. Espero dut lehen aldia izatea eta ez lehena eta*

*azkena, izan ere, interes eta prestasun hori ez da ikusten gobernu taldean. Gehiengoa duzue, baina, gauzak beste modu batera egin behar dira// (alkateak esandakoari erantzunez) Noski pertsonak garela eta akatsak egiten ditugula. Bainan egun batetik bestera egin zen deialdian, bidali ziren dokumentuen artean, ez zegoen idazkariaren txostenetan eta ezta alegazio idazkia bera ere. Guztioak gara pertsonak, dudarik gabe, baina deialdia bidali zuena ez dago atzotik Udalean. Ez dakit beti egin diren idazkariaren txostenak, nik, behintzat, ez ditut beti ikusi. Gogoratzen dut lehenengo aldaketarekin guk ez genuela horrelako txostenik izan. Eta, gero, gobernu taldearen arteko differentziei dagokionez, ba, nik esango nuke badagoela jarrera aldetik, Iñakik eta Ikerrek beraien burua eskaini zutelako beraien arloko puntuei buruz hitz egiteko, auzo alkateei eta gainerakoei buruz hain zuzen. Eta nik uste dut eskertzeko dela, eta asko eskertu nuen. Beste seietan ez dut jarrera hori ikusi.*

Parte hartze gehiagorik egon ez denez, bozkatu egin da eta udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** EAJ/PNV udal taldearen 1. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

Aurrekari orokor eta formalkeriei dagokienez, eskertzeko da egungo gobernu taldeak, Partehartze Batzordearen bitartez eta azterketa sakon baten bidez, legegintzaldi hasiera guztietai normalki gauzatzen diren formalkerietaz haratago, Udal Antolaketa Erregelamendua egokitzeko ahalegina egin izana. Eta zentzu horretan, ulergarria da Partehartze Batzordeak gehien dagokion, hau da, partehartzean, oinarritu izana bere ahaleginak.  
Inola ere, ez zatekeen gaizki egongo beste Batzorde eta Azpi batzorde batzuk era berean parte hartu izana, adibidez, Berdintasun Zerbitzua, generoari dagokionez hizkera inklusibo bat faltan sumatzera baita.  
Horregatik, lehen alegazio bezala, hau sartu nahi izan dugu: hau da, testu guztia berraztertu dadila berriro Emakunde, emakumearen euskal zerbitzutik, emanak izan diren arauen arabera berridatziz.

**Alegazioa ONARTZEA ERABAKI DA.**

**Bigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 2. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

5.c) art.: Artikulu honek horrela dio: "Alkateordeen egitekoak honako hauek dira:  
c) Alkateak eskatutakoan, ekitaldi konkretuetan hura ordezkatzea, nahiz eta delegatuak ezin diren ekitaldiak izan, legearen arabera Alkateak parte hartu ezin duen ekitaldietan parte hartzea.  
Gure iritziz "...nahiz eta delegatuak ezin diren ekitaldiak..." esaldia kendu beharko litzateke delegaezinak badira Alkateak berak ere ezin duelako egiteko horien ariketaren delegazioa agindu. Gainera, honi buruz, testuaren egungo idazketan Udal Antolaketa Erregelamendu bereko 5.b) eta 6.1.par.en inguruan kontresan bat existitu ahal izango litzateken konsiderazioa gehituko genuke. Aipatu art. hauek horrela diote:  
5.b) art. "Alkateordeen egitekoak honako hauek dira:  
b) Alkateak delegatutako eginkizunak egitea, Legeak zehazten dituen salbuespenetan izan ezik.."  
6.1.par. art "Alkateak bere eginkizunak delegate ahal izango ditu, apirilaren 2ko legearen 21.3. eta 71. artikuluetan jasotako kasuetan izan ezik"

Zentzu honetan, gure proposamena 5.c.art.ak honako idazketa hau izan dezan izango litzateke: "Alkateordeen egitekoak honako hauek dira:  
c) Alkateak eskatutakoan ekitaldi konkretuetan hora ordezkatzea eta legearen arabera, Alkateak parte hartu ezin duen ekitaldien parte hartza."

Alegazioa **ONARTZEA ERABAKI DA**, eta ondorioz, 5. artikuluko c) atala honela idaztea:

Alkatea ekitaldi jakinetan ordezkatzea berak horrela eskatutakoan, eta baita lege-ak aginduta alkateak ezin duenean parte hartu ere edo, beste edozein arrazoiengatik, une batez bere funtzoak utzi behar dituenean.

**Hirugarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 3. alegazioa ONARTZEA ERABAKI DA, akats bat egin baita eta hori zuzendu beharra baitago.

Horrela, honako hau dioen lekuan:

"Udalbatzarrak hilero egingo ditu Ohiko Bilkurak, hilaren hirugarren ostegunean, 18.30ean. Hirugarren asteazkena baliogabea baldin bada, osoko bilkura aurreko egun baliodunean egingo da. Larunbatak ez dira kontatuko. Justifikatutako arrazoirik balego, Alkateak ahalmena izango du ordua aldatzeko. Aldaketaren arrazoien berri eman beharko dio Udalbatzarrari."

Honako hau esan behar du:

"Udalbatzarrak hilero egingo ditu ohiko bilkurak, hilaren hirugarren ostegunean, 18:30ean. Hirugarren osteguna baliogabea baldin bada, osoko bilkura aurreko egun baliodunean egingo da. Larunbatak ez dira kontatuko. Justifikatutako arrazoirik balego, Alkateak ahalmena izango du ordua aldatzeko. Aldaketaren arrazoien berri eman beharko dio Udalbatzarrari."

**Laugarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 4. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

" Beste hauek ere parte hartu ahal izango dute:  
b) Eskoriatzan erroldaratu dagoen edozein herritar edo Eskoriatzarekin zerikusirik duen edo bertan kokatua dagoen elkarreten batekin zerikusirik duen pertsona bat. Horiek, batzordearen Lehendakariari baimena eskatu ondoren, hitz egin ahal izango dute.

Deigarria da partehartzearen legegintzaldian egungo gobernu taldea artikulu honekin ez ohartu izana. Eta zentzu horretan, herritarren partehartzearentzat, dagokion baimenarekin, Batzordeko Presidente bati aurretiazko eskaera egin behar izatearen premia mantentzea. Ez dakigu Udal Antolaketa Erregelamenduaren irakurketan oharkabetasun bategatik edo gobernu taldeagatik kontrolatzen diren beste foro batzuetara desbideratuz (Eskohitza, Ibarraundi, Eingainke, etab.) eta, aldi batez, Udal Bilkura Aretotik aldenduz, herritarren partehartza kontrolatuta izatearen saiakera zorrotz bategatik den.

Zentzu berean, ez dugu bere izenean identifikatzen den pertsona Eskoriatzan erroldaratu egon beharraren arrazoia ulertzen, eta, halaber, edozein erakunderen izenean jarduten bada, honako hau Eskoriatzan kokatua, edo Eskoriatzarekin zerikusia duena izan beharra. Bilkurara doan herritarrek jakingo du Eskoriatzarekin edo Osoko Bilkurako egungo zerrendarekin zerikusia duen joatearen arrazoia.

*Aurrez aipatu guztia, ez dira murrizketa guzti hauek eta euren mantenimendua ulertzan, are gehiago, testuaren esan bezainbesteko azterketa egin baldin bada, eta aurreko bi paragrafoetan aipaturiko baldintzak betetzen ez dituen Osoko Bilkurako partehartzaile ororentzat dagoen ahots eskubidearen murrizketa ez aldatzera ere iritsiz.*

*Horregatik, eta Osoko Bilkura aretotik egiten diren interbentzioei dagokienez funtzionamendu ohitura egungo Udal Erregelamenduan existitzen den antolaketa murriztailearekin alderatuz oso ezberdina denez, gure proposamena jarraitzen duen bezala esango duen artikuluaren idazketa berri batera zuzentzen da:*

*"Beste hauek ere parte hartu ahal izango dute:*

*"Bere izenean edo erakunderen batenean identifikatzen den edozein pertsona, hitzegiteko eskubidearekin."*

Alegazioaren **ZATTI BAT ONARTZEA ERABAKI DA**, eta beraz, honako hau dioen lekuan:

*" Beste hauek ere parte hartu ahal izango dute:*

*b) Eskoriatzan erroldaratura dagoen edozein herritar edo Eskoriatzarekin zerikusirik duen edo bertan kokatua dagoen elkarrengan batekin zerikusirik duen pertsona bat. Horiek, batzordearen Lehendakariari baimena eskatu ondoren, hitz egin ahal izango dute.*

Honako hau jartzea:

*"Beste hauek ere parte hartu ahal izango dute:*

Udalbatzarraren bilkurak publikoak dira, herritarren intimitatearekin, ohorearekin edo irudiarekin zerikusia duten gaiak aztertu behar direnean izan ezik.Udalbatzarraren bilkuretan bere burua identifikatzen duen edonork parte hartu ahal izango du bere izenean edo edozein erakunderen ordezkaritzan, betiere, Alkate-Udalburuari horretarako baimena eskatu eta horrek baimena eman ondoren.

**Bosgarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 5. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

Egungo 19.a.art.a lehengo 19.a) eta 23 1. eta 2. par. erlazionatuta. Egungo 19 a) art.ak honedio: " a. Plenoetan Lehendakaria Alkate jauna izango da edo hark izendatutako zinegotzia.- Plenoa egiteko beharrezko da gutxienez lau udalkide eta idazkaria elkartzea (...)"

Gure aldetik, aurreko 23.art.ak Udalbatza Bilkura baliozko izan dadin behar den quorum berekin egoki osatzeari egiten zion erreferentzia ezabatu dela ikusten da. Gure iritziz, testuaren idazketarako teoriazko simplifikazio baten izenean ez litzateke erreferentzia ezabatu behar, bi gauza ezberdin baitira, Udalbatzaren osaketa, alde batetik, eta honen baliozko gauzatza, bestetik. Quorum bera behar izanda ere, lasai asko gerta baitaiteke Udalbatzaren osaketa zuzena eta Bilkuraren baliozko gauzatze, osokoa ala partziala, eragotziko luken ondorenquórum galera.

Horrela, oraingo 19. a)rentzat proposatzen den alternatiba honako hau da: " Udalbatza lau udalbatzakide eta Idazkariaren bertaratzearekin geldituko da osatua.

Behin Udalbatza osatua, Lehendakaria Alkate Jn/And.a izango da ....(egungo idazketa)"

Kontuan izanik alegazioan proposatutako erredakzioa argiagoa dela, aho batez **ERABAKI DA** alegazoa **ONARTZEA**. Ondorioz, honela jasotzea proposatzen da:

19. artikulua:

- a. Udalbatzarra balioz eratzeko beharrezko da lau udalbatzarkide eta idazkaria bertan egotea. Behin Udalbatzarra eratuta, bilkuretako lehendakaria Alkate jauna edo berak izendatutako zinegotzia izango da. Bilkurak egiteko beharrezko da gutxienez lau udalbatzarkide eta idazkaria elkartzea. Gutxieneko quorum hori bilkurak iraun bitartean mantendu beharko da. Hala ere, erabaki berezi batzuk hartzeko gutxieneko beste quorum bat finkatuta dagoen kasuetan, gutxieneko berezi hori bete beharko da.

**Seigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 6. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

21.1.Par art.ak horrela dio: " Ohiko Bilkuran tratatuko diren eta, agian, bozkatuko diren gaien zerrenda eta dokumentazioa, bilkura egin aurreko ostiralean, eguerdiko 13.00ak baino lehen egon beharko da idazkaritzan. Ez ohiko bilkura egindakoan, berriz, dokumentazioak gutxienez hiru lanegun lehenago egon beharko du idazkaritzan."

Ez zaigu bidezkoa iruditzen dokumentazio guztia bilkura egin aurreko ostiralean, eguerdiko 13.00ak baino lehen egon behar izatea idazkaritzan. Gentozen egoerarekin eskubide galera bat suposatzen duelako, hain zuzen ere. Aurreko legegintzaldian Osoko Bilkurak asteazkenetan izanda, dokumentazio guztia bilkura egin aurreko ostiralean, eguerdiko 13.00ak baino lehen idazkaritzan egotea ezartzen zen, eta posta elektronikoz jasotzen zen Osoko Bilkurari zegokiona. Legegintzaldi honetan, Osoko Bilkurak ostegunetara atzeratuta, eta epeak ez mozte aldera, ederki asko atzera zitekeen dokumentazio horren aurkezpena Osoko Bilkurako aurreko astelehenera, ez baigenuke ahaztu behar Zinegotzien lan hori amateurra ere badela.

Zentzu horretan, gure proposamena 1.par. hori era honestan zuzentzea da: "Ohiko Bilkuran tratatuko diren eta, agian, bozkatuko diren gaien zerrenda eta dokumentazioa, bilkura egin aurreko astelehenean, eguerdiko 13.00ak baino lehen egon beharko da idazkaritzan. Ez ohiko bilkura egindakoan, berriz, dokumentazioak gutxienez hiru lanegun lehenago egon beharko du idazkaritzan."

Alegazioa **ONARTZEA ERABAKI DA**, eta ondorioz, 21. artikuluko 1. paragrafoa honela idaztea:

"Ohiko Bilkuran tratatuko diren eta, agian, bozkatuko diren gaien zerrenda eta dokumentazioa, bilkura egin aurreko astelehenean, eguerdiko 12:00ak baino lehen egon beharko da idazkaritzan. Ez-ohiko bilkura egindakoan, berriz, dokumentazioak gutxienez hiru lanegun lehenago egon beharko du idazkaritzan."

**Zazpigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 7. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

28.4.par. art.ak horrela dio: " Bozketak ohiko eran egingo dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako, eta gehiengo soilez, berariaz bestelakorik ez badu erabakitzet, behintzat.

Kontrakorik argi eta garbi eta berariaz adierazten ez dutenek alde bozkatu dutela ulertuko da. Isilik egotea ere, proposamenaren aldeko bototzat joko da."

Artikulu hau hona ekartzean, gure asmoa honen bigarren zatia aipatzea da. Hau da, isiltasuna proposamenaren aldeko bototzat hartzeari buruz. Badago gazteleraez isilik dagoena alde dagoela dioen esaera bat. Baina gure iritziz, Udaletxeak ez luke esaera zahar, topiko edo atsotitzen arabera funtzionatu behar. Hasteko, talde politiko bezala, sistema parlamentari batean, ez dugu ulertzen inor isiltzea, alegia, norbaitek, tratatzentzen den gai baten aurrean, boto moduan gauzaturiko bere iritzia ez adieraztea. Definiturik gabeko posizioa izatea, ordea, oso zilegia izan daiteke, eta horretarako daude boto zuria edo/eta abstentzia. Horregatik, uste dugu isiltasuna ez litzatekela bozketa batean onartua izan behar, eta sarrera emango balitzao, baiezko botoarekin baino abstentziaarekin identifikatu beharko litzatekela.

Hori dela eta, gure proposamena bigarren zati hori kentzera zuzendua doa, horrela geldituko litzakeelarik:

28.4.par. art.a: "Bozketak ohiko eran egingo dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako, eta gehiengo soilez, berariaz bestelakorik ez badu erabakitzentzen, behintzat" ..

28. artikuluko 4. paragrafoari idazkera berria ematea ERABAKI DA, ondorengoa:

Bozketak ohiko eran egingo dira, Udalbatzarrak kasu zehatzen baterako, eta gehiengo soilez, berariaz bestelakorik ez badu erabakitzentzen behintzat. Bozketak ohiko eran egiteak esan nahi du zinegotzi bakoitzak berariaz adieraziko duela bere bota.

**Zortzigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 10. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

31.2.par.art.ak dio: " Zinegotzien tartea bukatu ondoren, herritarrek parte hartzeko tartea zabalduko da eta nahi duten herritarrek, beti ere interesekoa den gairen bat buruz dituzten zalantzak edo kontsultak egiteko aukera izango dute. Gai horiek ez dira inolaz ere interes partikularrekoak izango."

Gure ustez, "Gai horiek..." dioenetik aurrera, paragrafoaren azken zatia ezabatu behar da, ulertezina egiten baitzaigu herritar bat, gai personal edo familiar bat izanda ere, Udalbatzakide guztietara zuzendo ez ahal izatea. Osoko Bilkurak publikoak dira, eta udalbatzakideak ezin dira herritarra bertan parte hartzera dakarten arrazoiaik baloratu edo baldintzatzen hasi

Hori horrela, honako idazketa hau proposatzen dugu: "Zinegotzien tartea bukatu ondoren, herritarrek parte hartzeko tartea zabalduko da eta nahi duten herritarrek, gairen bat buruz dituzten zalantzak edo kontsultak egiteko aukera izango dute.

**ALEGAZIOA ONARTZEA ERABAKI DA**, eta ondorioz, 31. artikuluko 2. paragrafoa honela idaztea:

Behin zinegotzien txanda amaituta, txanda berri bat irekiko da hala nahi duten herritarrek kontsultak egin ahal izateko."

**Bederatzigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 11. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

“Ez Ohiko Plenoa Alkateak erabakitakoan edo lau zinegotzik eskatutakoan egin ahal izango da. Zinegotzi batek ezingo du urtean hiru aldiz baino gehiagotan eskatu ez ohiko plenoa egitea.” Artikulu hau irakurtzean sortzen zaigun galdera da zergatik mugatzen zaien zinegotziei Ez Ohiko Osoko Bilkuren eskaera egitea urteko hirura. Herritarren partehartzearen izenean zinegotziak mugatzeko eta gutxiesteko joera bat antzematen dugu. Ez litzatekeena horrela izan behar, herritarren partehartzearen sustapena oso garrantzitsua bada ere, ordezkarien sistema demokratiko batean gaudela ez genuelako inoiz ahaztu behar. Horrela baino ez dugu ulertzen gehienez hiru ipintzearen ezarpen hori. Eta ez gaude ados.

Horregatik, gure proposamena 33.art.ko 1.par.aren azken esaldi horretako ezabapena da, horrela geldituz: “Ez Ohiko Plenoa Alkateak erabakitakoan edo lau zinegotzik eskatutakoan egin ahal izango da.

## **Idazkariak egindako txostenean jasotako arrazoiengatik, ALEGAZIOA EZ ONARTZEA ERABAKI DA**

**Hamargarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 12. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

Batzordekideei dagokien 35.2 par.art.ak barkatuko diguzue baina euskarazko eta gaztelerazko bertsioek ez dute gauza bera esaten, eta gure desadostasunak gaztelerazko testuak dioenarekin datoz. Beraz, argitu dadila eskatzearekin bat, gaztelerazko testuarekiko desadostasunak aipatuko ditugu.

Art.35 parr.2º relativo a los miembros de la Comisión, dice así “ *Miembros de la Comisión: Serán los concejales representantes de cada uno de los grupos políticos. Los grupos políticos podrán nombrar para cada comisión el número de Concejales que consideren oportuno, y cuyo número no podrá superar el número de representantes que cada grupo tiene en la Corporación.*”

A nuestro entender, se observa un cambio drástico en este apartado pues no en balde resulta ser el único cambio introducido en el actual art.35 en relación al art 34. del anterior Reglamento Orgánico. De este modo, hemos pasado de un Concejal representante de cada grupo político a los Concejales que cada grupo considere oportuno, siendo, posteriormente, que todos los miembros de la Comisión, como no podía ser de otra manera, tienen voto.

Nos parece un exceso derivado de alguna razón que se nos escapa, sobre todo, por parte de un equipo de gobierno con una mayoría y una tesitura en cuanto a la composición de grupos políticos y de mayorías, así como de participación, más que suficiente para gobernar a su antojo sin modificaciones de este tipo. Máxime cuando para contribuir a la perfecta gobernabilidad se añade la posibilidad de que otros corporativos participen con voz pero sin voto en esas mismas Comisiones.

En ese mismo sentido, resulta gracioso y muy significativo para quien quiera extraer las consecuentes conclusiones esa última frase que a modo de coletilla cierra la redacción del artículo “ ... y cuyo número no podrá superar el número de representantes que cada grupo tiene en la Corporación.” A falta de ilustrativas explicaciones al respecto, nosotros abogaríamos por su supresión.

Así, nuestra propuesta residiría en mantener la redacción que traía anteriormente el Reglamento Orgánico, y quedaría de la siguiente manera: “*Un concejal representante de cada uno de los grupos políticos.*”

**ALEGAZIOA EZ ONARTZEA ERABAKI DA,** izan ere, hasiera batean onartutako testuarekin talde bakoitzak batzordeetan duen parte-hartze portzentajea Udalbatzarrean duenarekin parekatu gura baita.

**Hamaikagarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 13. alegazioari buruz:

Alegaziogileak honako hau dio:

35.art.aren ildotik, eta Batzorde osaketari dagokionez, azken paragrafoak dio “ Herritarren interesak orohar edo sektore baten interesak defendatu nahi dituen edozein pertsona edo elkarre. Kasu horretan pertsona edo ordezkarri horrek Lehendakari baimena eskatu beharko dio eta erregulartasunez parte hartzeko konpromisoa hartu beharko du.”

Berriro ere, ez dugu partehartzearen murrizketaren zergatia ulertzen interes orokor edo sektorialen defentsan oinarriturik soilik. Gure iritziz,edozein elkarre edo pertsonak izan behar luke Batzordera zuzentzeko eskubide hori, Batzorde batera zuzentzeko dakarren arrazoiei buruz Erregelamendu Organikoak inolako baldintzarik ezerri gabe, eta gaia Batzordera eramatea beharrezko den ezagutu eta baloratzeko asmoz, eta horrela balitz, Batzordean partehartze horren sarrerarekin Batzordeko eguneko gai zerrendaren antolaketa zuzen bat egiteko xedez, Batzordeko Presidenteari eginiko eskaeraren iragazki bakarrarekin.

Bestalde, interes orokor edo sektorialak defendatzu erregulartasunez Batzordeetan parte hartzera, Batzordearen aurrean une zehatz baten eskatuko duten elkarre edo pertsonen aldetiko konpromisoa hartzearren inguruko Erregelamenduaren baldintza ez zaigu egokia iruditzen, demokratikoki hautaturiko ordezkarriak interes orokor edo sektorialak defendatzu, Batzordeetan erregulartasunez partehartzeko betebehar, eta ondorioz lortzen den eskubidea, izatearen berdinhetatik hasiz, demokrazia organiko modu batera joan nahi baldin ez bada, behinik behin.

Eta, are gehiago, interes orokor edo sektorialak defendatzu ditzaketen elkarre edo pertsonen partehartze erregularra izateko, Udal Antolaketa Erregelamendu honetan beste figura bat erregulatuta daukagunean: Azpibatzordeak, alegia.

Hori dela eta, gure proposamena paragrafo hori honela idaztea izango litzateke: “Batzordeko Presidenteari horrela eskatuko dion edozein elkarre edo herritar.”

Aurkeztutako **ALEGAZIOA EZ ONARTZEA ERABAKI DA**, izan ere, Udalaren Antolaketa Erregelamenduan bi parte-hartze modu aurreikusi gura dira batzorde informatzaileetarako elkarreak edo pertsona partikularrak direnean (36. artikuluan unean uneko parte-hartzea interes partikularragoetarako, eta 35. artikuluan jasotako parte-hartze ohikoagoa, interes orokorreai edo arlokakoei erantzuten diena)

Era berean, artikuluko testua **honela idaztea ERABAKI DA:**

“Herritarren interes orokorrak edo arlokakoak defenditzeko batzordeburuari horrela eskatutako edozein elkarre edo pertsonak. Kasu horretan, parte hartzea onartzea justifikatu duen interes orokorra edo arlokakoa aztertu behar den batzordeetan erregulartasunez parte hartzeko konpromisoa hartzen da.”

**Hamabigarrena:** EAJ/PNV udal taldearen 14. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

36.art.an adierazten da: “*Herritar batek edo elkarre bateko ordezkarri batek puntualki gai konkretu bat tratatzeko batzordean parte nahi badu, batzordeburuari baimena eskatuko dio gai hori tratatzten den bitartean batzordean egoteko. Baimena lortuz gero, herritar horrek hitz egiteko aukera izango du baina gaia bozkatzerakoan ez du botorik izango.*”

*Guk uste dugu artikulu hau bat datorrela aurreko alaegazioan azaltzen genuenarekin. Eta, aldiz batez, pentsatzen dugu artikulu honetako literaltasuna 35.art.ko azken paragrafoko literaltasunarekin kontraesanean dagoela.*

*Beraz, 36.art. hau mantentzea eta 35.azk.par.aren zuzenketa proposatzen dugu.*

**ALEGAZIOA ZATI BATEAN ONARTZEA ERABAKI DA** aurreko puntuaren alegatutako arrazoientzatik, hau da, 36. artikulua bere horretan lagatzeari buruzkoa onartzen da eta 35. artikuluari buruzkoa ez da onartzen, udalaren antolaketa erregelamenduan batzorde informatzaileetarako bi parte hartze mota aurreikusi gura direlako.

**Hamairugarrena:** 15. alegazioari buruz:

Alegazioak honako hau dio:

*45.art.ak ezartzen du: " Udalak bere jardunaren informazio zabala eskainiko die herritarrei, eta herriaren jardunean eragin ahal izateko ateaek zabalduko ditu, beti ere udal organoek erabakiak hartzeko daukaten eskumena murriztu gabe."*

*Partehartzeak udal organoek erabakiak hartzeko daukaten eskumena murriztu gabe izango dela dioen azken xedapen hori nabaria izateagatik soberan dagoela irizten diogu. Inork eta ezerk ez luke zalentzan ipini behar erabaki ahalmen eta eskumena udal organoek dagozkienik.*

*Horrela, gure proposamena esaldi horren ezabaketa izango litzateke, jarraian aipatu bezala ezarria geldituko litzatekeelarik: " Udalak bere jardunaren informazio zabala eskainiko die herritarrei, eta herriaren jardunean eragin ahal izateko ateaek zabalduko ditu."*

**ALEGAZIOA EZ ONARTZEA ERABAKI DA**, izan ere, jakina izanagatik soberan badago ere, **kendu gura den espresio hori berariaz jasotzea egokitzat jotzen da.**

**Hamalaugarraga:** 16., 17., 18., eta 19. alegazioei dagokienez, aho batez **ERABAKI DA HORIEK ONARTZEKO PROPOSATZEA UDALBATZARRARI**, honako salbuespen hauekin:

- **Lehenengoa:** Auzo alkateentzako aurreikusitako ondorengo eskumenari dagokionez:

"Delegazioak ezartzen dituen aferen eremua, delegatzen diren ahalmenak delegazioaren lurralte eremura mugatuak zein hauen ariketaren baldintza bereziak Alkate Dekretu bidez Alkateagatik delegatuak izango diren beste edozein ahalmen"

Idatzariak egindako txostenaren arabera, aho batez ERABAKI DA berri-daztea eta honela lagatzea:

*Alkatearen ordezkarria denez auzoan edo elizatean, Alkate-Udalburuak emandako beste edozein jarduera edo zeregin zehatz. Hala ere, horrek ez du ekarriko, inolaz ere, esku-duntzarik edo eskumenik eskuordetzea.*

- **Bigarrena:** Auzo alkateei buruz hau ere, alegaziogileak honako hau proposatzen du:

“AuzoAlkateak dagokien elizatean bizilagun guztiengatik hautatuak izango dira. Izendapen hori Alkateagatik berretsia izango da”.

“Karguaren iraupena berretsi zuen Alkatearen agintaldira lotua izango da, eta Alkateak elizatearen hautaketa berri baten bitartez baino ezingo du kendu”

Idazkariak egindako txostenaren arabera, aho batez erabaki da berri-daztea eta honela lagatzea:

“Elizate alkatea elizate bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Auzo alkatea auzo bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Proposatutako izangaia izendatuko du Alkateak. Proposatutako izangaia izendatzera ukatuko balitz, horretarako arrazoiak eman beharko ditu eta uko egitea hori justifikatu.

“Karguaren iraupena izendapena egin zuen Alkatearen agintaldiari lotuta egongo da. Era berean, Alkateak elizate edo auzo alkatea kargutik kendu ahal izango du justifikatutako arrazoiengatik eta Eliza juntari edo Auzo Juntari entzunaldia eman ondoren.

- Hirugarrena: Zinegotzien eskubideen eta betebeharrei dagokienez, alegazioan honako hau aurreikusten da:

*Zinegotziek Udalbatzako Bilkuretarra hatos eta botoarekin joateko eskubide eta betebearra, eta kide diren udal organoetara joateko eskubidea dute.”*

Artikulu hori honela idaztea ERABAKI DA:

*Zinegotziek, hitz egiteko eta bota emateko eskubidearekin, Udalbatzarraren bilkuretarra joateko eskubidea eta betebearra dute, eta baita kide diren kide anitzeko udal organoetara joateko eskubidea eta betebearra ere.*

**Hamabosgarrena:** Iker Akizu zinegotziak egindako ondorengo zuzenketari buruz:

**2. artikula.** “Udalak ondorengo aginte-organoak izango ditu:

.....

1. ERABAKITZEKO AHALMENDUNAK:
  - a. Alkatea
  - b. Udal Plenoa
  - c. Alkateordeak, hurrenkeraren arabera.
  - d. Zinegotzi Arduradunak.
  - e. Elizate alkateek eta auzo alkateek Alkatearen ordezkarri elizateetan eta auzoetan direnez.

2. GAIAK AZTERTU, INFORMATU ETA PROPOSATZEKO AHALMENA DUTENAK:

- a. Batzorde informatzaileak edo bereziak
  - b. Azpibatzordeak
  - c. Alderdi Politikoetako Bozeramaileen Batzordea
  - d. Sektore Kontseiluak
  - e. Elizate alkateek eta auzo alkateek Alkatearen ordezkarri elizateetan eta auzoetan direnez.
- .....

Elizate alkateei, auzo alkateei, elizate juntei, auzo juntei eta bizilagunen batzarrei buruzko I tituluko VII kapitulua sortzea proposatzen dugu.

Zuzenketaren **ZATI BAT ONARTZEA ERABAKI DA**, eta artikulua horrela gelditzen da:

1.- ERABAKITZEKO AHALMENDUNAK:

- a. Alkatea
- b. Udal Plenoa
- c. Alkateordeak, hurrenkeraren arabera.
- d. Zinegotzi Arduradunak

2.- GAIAK AZTERTU, INFORMATU ETA PROPOSATZEKO AHALMENA DUTENAK:

- a. Batzorde informatzaileak edo bereziak
  - b. Azpibatzordeak
  - c. Alderdi Politikoetako Bozeramaileen Batzordea
  - d. Sektore Kontseiluak
  - e. Elizate alkateek eta auzo alkateek Alkatearen ordezkarri elizateetan eta auzoetan direnez
- .....

Elizate alkateei, auzo alkateei, elizate juntei, auzo juntei eta bizilagunen batzarrei buruzko I tituluko VII kapitulua sortzea proposatzen dugu.

**Hamaseigarrena:** Iker Akizu zinegotziaren ondorengo zuzenketari buruz:

**23. artikula.**

1. Elizate bakoitzean ordezkarri bat izango du Alkateak: Elizate Alkatea, eta Lete auzoan, berriz, Auzo Alkatea. Elizate alkateak eta auzo alkatea elizate bakoitzean eta auzo horretan bizi direnen artean aukeratuko da ondorengo artikuluetan ezarritako moduan.

2. Elizate alkateek eta auzo alkateak agintari izaera izango dute, Alkatearen ordezkarri diren heinean, udal betebeharra betetzerakoan.

3. Elizate alkateak elizate bakoitzean bizi direnek aukeratuko dituzte eta auzo alkatea, berriz, auzo horretakoek. Horien izendapena Alkateak berretsi beharko du.

4. Karguaren iraupena izendapena egin zuen Alkatearen agintaldiari lotuta egongo da; eta honek ezingo du bere kargutik kendu elizateak edo auzoak ez badu beste norbait aukeratzen.

5. Gobernu batasunaren eta udal kudeaketaren kaltetan gabe, elizate alkateek eta auzo alkateak ondorengo atribuzioak izango dituzte:

- a) Elizate juntetako, auzo juntetako eta bizilagunen batzarretako bileretarako deia egin eta bilera buru izan, eztabaidak zuzendu eta berdinketak erabaki bere kalitateko botoarekin.
- b) Juntaren eta bizilagunen batzarretako erabakiak bete eta betearazi.
- c) Bere kabuz edo Alkateak horrela eskatuta, landa bideen, udal mendien eta udal zerbitzuen berri eman.
- d) Elizatean eragina izan dezaketen edo elizaterako interesgarriak izan daitezkeen obra eta zerbitzuen projektuei buruzko informazioa eman, betiere, bere eskumenak baliatuz.
- e) Elizatearentzako edo auzoarentzako interesgarriak izan daitezkeen obrak egiteko edo zerbitzuak emateko proposatzea Udalari, berak dituen eskumenak baliatuz.
- f) Herriko gaien kudeaketan eta elizateko edo auzoko bizitza soziala dinamizatzeko jardueretan auzotarren parte hartza sustatzea.
- g) Udalak gai batir buruzko informazio eskatutakoan, informazio hori ematea.
- h) Alkateak dekretuz eskuordetutako beste edozein. Eskuordetzan eskuordetzen gaiak, eskuordetutako ahalmenak eta eskuordetzen lurraldea aipatu beharko dira, eta baita eskuordetza gauzatzeko baldintza zehatzak ere.

Zuzenketa **ZATI BATEAN ONARTZEA ERABAKI DA.** Artikulua horrela gelditzen da:

**23. artikulua:**

1. Elizate bakoitzean ordezkari bat izango du Alkateak: Elizate Alkate; eta Lete auzoan, berriz, Auzo Alkatea. Elizate alkateak eta auzo alkatea elizate bakoitzean eta auzo horretan bizi direnen artean aukeratuko da ondorengo artikuluetan ezarritako moduan.
2. Elizate alkateek eta auzo alkateak agintari izaera izango dute, Alkatearen ordezkari diren heinean, udal betebeharrak betetzerakoan.
3. Elizate alkatea elizate bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Auzo alkatea auzo bakoitzean bizi diren auzotarrek proposatuko dute, horretarako egindako hautaketaren ondoren. Proposatutako izangai izendatuko du Alkateak. Proposatutako izangaia izendatzera ukatuko balitz, horretarako arrazoiak eman beharko ditu eta uko egite hori justifikatu.
4. Karguaren iraupena izendapena egin zuen Alkatearen agintaldiari lotuta egongo da. Era berean, Alkateak elizate edo auzo alkatea kargutik kendu ahal izango du justifikatutako arrazoiengatik eta Eliza juntari edo Auzo Juntari entzunaldia eman ondoren.
5. Gobernu batasunaren eta udal kudeaketaren kaltetan gabe, elizate alkateek eta auzo alkateek ondorengo atribuzioak izango dituzte:
  - a) Elizate juntetako, auzo juntetako eta bizilagunen batzarretako bileretarako deia egin eta bilera buru izan, eta eztabaidak zuzendu eta berdinketak erabaki bere kalitateko botoarekin.
  - b) Juntaren eta bizilagunen batzarretako erabakiak bete eta betearazi.
  - c) Bere kabuz edo Alkateak horrela eskatuta, landa bideen, udal mendien eta udal zerbitzuen berri eman.
  - d) Elizatean eragina izan dezaketen edo elizaterako interesgarriak izan daitezkeen obra eta zerbitzuen projektuei buruzko informazioa eman, betiere, bere eskumenak baliatuz.
  - e) Elizatearentzako edo auzoarentzako interesgarriak izan daitezkeen obrak egiteko edo zerbitzuak emateko proposatzea Udalari bere eskumenak baliatuz.

f) Herriko gaien kudeaketan eta elizateko edo auzoko bizitza soziala dinamizatzeko jardueretan auzotarren parte hartzea sustatzea.

g) Udalak gai bati buruzko informazio eskatutakoan, informazio hori ematea.

h) Alkatearen ordezkarria denez auzoan edo elizatean, Alkate-Udalburuak emandako beste edozein jarduera edo zeregin zehatz. Hala ere, horrek ez du ekarriko, inolaz ere, eskuduntzarik edo eskumenik eskuordetzea.

**Hamazazpigarrena:** Iker Akizu zinegotziaren ondorengo zuzenketari buruz:

**24. artikulua.**

1. Udal eskumeneko gaien kudeaketa hobea lortze aldera elizate edo auzo bakoitzaren eremuan, elizate juntak edo auzo juntak eratuko dira, eta horiek deskontzentratutako kudeaketa lurralde organo izaera izango dute. Elizate juntak eta auzo juntak elizate alkateak edo auzo alkateak eta horiek hautatzerakoan horien ondoren boto gehien lortu zuten bi edo hiru auzotarrek osatuko dituzte

2. Elizateetako edo auzoko lurralde eremuan informazioa ematea eta jendearen parte hartzea ahalik eta gehien errazte aldera, elizate alkateak edo auzo alkateak bizilagunen batzarrerako deia egin ahal izango du. Batzar hori, bertan parte hartu nahi duten elizate edo auzo bakoitzeko adin nagusiko bizilagun guztiak osatuko dute

3. Elizate juntako edo auzo juntako kideei dagokie elizate alkatearen edo auzo alkatearen gestioa kontrolatzea eta berari laguntzea bere atribuzioak gauzatzerakoan

Zuzenketa **ONARTZEA ERABAKI DA.**

**Hemezortzigarrena:** Erabaki honetan onartutako alegazio eta zuzenketekin testu berri bategina egin dezatela udal zerbitzu teknikoek.

**Hemeretzigarrena:** Kontuan izanik onartutako alegazio eta zuzenketa batzuk hasiera batean onartutako testuan funtsezko aldaketak egiten dituztela, arau horiek jendaurrean jartzen dira 30 egunez, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak horiek aztertu, eta hala iritziz gero, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzan.

Jendaurrean jartzen diren arauak, onartutako zuzenketak eta alegazioak batzen dituen testuko zenbakien arabera, honako hauek dira: 2-2e) artikulua; 3-t) artikulua; .5 c) artikulua; III. KAPITULUA: ZINEGOTZIAK; VII. KAPITULUA: ELIZATE ALKATEAK, AUZO ALKATEAK, ELIZATE JUTNAK ETA BIZILAGUNEN BATZARRAK; 26 a) eta c) artikuluak; 28. artikulua; 35. artikulua ( atala: bozketak); 38. artikulua eta 42. artikulua.

**2.- Hidalga kaleko 20. zenbakian igogailua jartzeko egindako obrari hobaria aitortzea.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hidalga 20 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZaren % 90eko hobaria egitea, obrek betetzen baitituzte hobaria jasotzeko beharrezko baldintza hauek:

- a. Igogailua eraikinaren barnean jarri da.
- b. Ez du eraginik gune publikoetan.
- c. Igogailuaren jaitsera lekua eraikineko elementu komunetan dago eta ez etxebizitzen leku partikularretan.

### **3.- BILDUK aurkeztutako mozioa HIRI HONDAKINEN KUDEAKETARI buruz.**

Hitza eman ondoren, Leire Urzelai andreak jakinarazi du BILDUK mozioa aurkeztu ondoren zenbait aldaketa adostu direla gobernu taldearekin. Horregatik, dio, orain banatu den testuan aldaketa horiek zeintzuk diren jasotzen dira. Ondoren mozioaren xedapena irakurri du, ondoren osorik transkribatzen dena, aldaketak barne.

Testua honako hau da:

Udalen helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintza da, eta Eskoriatzako udalak, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarren bizi kalitatea eta ingurumena zaindu nahi du, zalantzarak gabe.

Hori horrela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkio, Debagoieneko Mankomunitatean urteak damaratzakigu gure hiri hondakinak bildu eta Sasietako zabortegira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinak eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Eta hori ez da zuzena. Zuzena ez den bezala, birziklatzeko saioa guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arriskutsua izateaz gain antza baita. Europako Parlamentua ere jakitun da bizi dugun egoeraz eta gaur egun ezagutzen ditugun zabortegiak eta errauskailuak ixteko pausuak ematen ari dira.

Eskoriatzarrok arazo bat dugu hondakinekin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitura dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %30era iristen, %90 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara.

Txalotzekoa bada ere, oso gutxi dira autokonpostajea egiten dutenak eta gainontzeko, ez dugu organiko gramo bakar bat ere sailkatzen bere bilketa bereziturako. Errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Arazoa dugu bai, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Eskoriatzako airea, mendiak eta errekkak garbiak nahi ditugu. Horregatik, eta Eskoriatzan gauzak ongi egiten dakigulako arazoari muinetik helduko diogu.

Eskoriatzarrok hondakinen murrizketari, berrerabilzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Gure herrian gauzak ongi egiten badakigulako, Eskoriatza ere zero zabor norabidean jarriko dugu, pausu txiki batekin emaitza ezin hobeagoak lortzen baitaitezke.

Honainoko kontuan, udalbatzak akordio hauek onartzen ditu:

- 1.- Eskoriatzako udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du Debagoieneko Mankomunitatearekin.
- 2.- Eskoriatzako udalak Mankomunitatearekin batera konpostatze kanpaina zabala adostuko du eta herriko familien artean autokonpostatzea eta konpostatze komunitarioa sustatuko ditu, besteak beste bonifikazio esanguratsuak eskeiniz praktika hau berraganatzetan duten familiei.
- 3.- Eskoriatzako udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, egungoa baino emaitza hobeak lortzen dituen hiri hondakinen kudeaketarako sistema baten alde egitea berresten du, bilketa osasunagari, jasangarri eta bideragarriaren alde, alegia. Honela, gutxienez %70-eko birziklatze maila lortu daitekeela ziurtatzen duen sistema ezarriz: atez ateko bilketa, hau da, hondakinak berezitzeta eta frakzio txikitak batzen dituen sistema.
- 4.- Ezarpena, Debagoieneko Mankomunitatearen plangintzarekin bat eginez burutuko da. Eskoriatzako udalak plangintza honek dioenaz haratagoko neurriak gehitu ditzake finkatutako helburuak lortzea bermatze asmoz.
- 5.- Ezarpena aurrera eraman baino lehen, partehartze prozesuarekin jarraituko da, ondoko zehaztapenekin:
  - a) Hondakinen kudeaketaren berri ematen jarraituko da, informazioa egitzakoa, gardena eta osoa izanik.
  - b) Herritar guztiekin batera, sistema berriaren xehetasunak adostuko dira, Debagoieneko Mankomunitatearen irizpideekin koherentzia mantenduz
  - c) Sistema ezarri ondoren, aldian behin horren funtzionamendua ikuskatuko da, birziklatzeko helburua lortzen ari den egiaztatzearen; eta horretarako, beharrezko hobekuntzak, aldaketak eta berrikusketak egingo dira
- 6.- Eskoriatzako Udalak, herritar guztiekin ahalik eta gehiena birziklatzeko laguntza eta erraztasunak bideratuko ditu, horretarako herriaren morfologiara egokitutako ekarpen eta larrialdi gune nahikoa ezarriz.

Gutxienez hiru gune bermatuko dira Eskoriatzan eta honez gain, Aretxabaletako udalarekin elkarlana sustatuko da Gellao eta Mendiola auzotarrei irtenbide egoki bat emateko.

7.- Eskoriatzako Udalak, Europako Parlamentuak 2020rako gaur egungo zabortegiak eta errauskailuak ixteko hartutako erabakiari jarraiki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingrumen Sailari eta Gipuzkoako Hondakinen Kontzortzioari erabaki hauek guztiz beteko ez lituzken Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeakeatzeko Plana egokitzeko eskatzen dio.

8.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Eskoriatza zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.

9.- Hau guzia burutzeko, Debagoineneko Mankomunitatearekin lan-batzordean aktiboki parte hartuko du.

Ondoren, Alkateak parte hartze txanda ireki du.

Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea esku zuelako: *Bueno, uste dut denon iritziak ezagunak direla. Guri, eta lehenengo gauza bezala, arraroa egiten zaigu ere gai hau mozio bidez aurkeztea. Ez du ematen serioa denik ikuspuntu formaletik, eta gainera, ematen du tartean beldurren bat dagoela; Jose Luisen ondo esan duen bezala, mozio bat, azken batean, asmoak adierazteko testu bat baita. Hala ere, ez ginateke hainbeste harritu behar, Udal honetan, sozialistek aurkeztutako mozio bat kenduta, ez baita hitz egin zaborrei buruz.*

*Eta dudarik gabe, eta horrela ondorioztatzen da honetatik guztionetatik, erabakia beste nonbait hartuta dago, ez dakit orain dela denbora asko edo gutxi; baina, dakigun ia dena, dena ez esatearren, 30 alkatek, eta horien artean gureak, emandako prentsurrekoaren bidez jakin izan dugu, bertan esan baitzuten hori izango zela ezarri behar zen sistema, eta gainera, egutegi eta guzti. Askotan esaten da gai hori politizatuta dagoela. Uste dut emandako adibideak -hau da, udal eskumeneko gai bat buruzko erabakia hartuta dagoela eta beste nonbait hartuta dagoela- garbi uzten duela zeintzuk eta nola politizatu duten. Guk ezezko btoa emango dugu, batez ere, esaldi bategatik, mozio osoan gustatzen zaigun bakarra dena, honakoa: Udalaren helburu nagusietako bat herriaren ongizatea zaintza da, eta Eskoriatzako udalak, zerbitzu publikoa den aldetik, herriarron bizi kalitatea eta ingurumena zaindu nahi du, zalantzak gabe. Horregatik, guk aurka botatuko dugu, hainbeste zeresan ematen ari den gai bat buruz, guk, herriaren ongizatea defendatzeko, uste dugulako guk proposatzen dugun sistemak herriaren ongizatea hobeto zaintzen duela. Eta alde horretatik, lehenak izan gara kontsulta bat eskatzen -eta kasualitatea ere bada Eskoriatzako EAJ izatea lehena kilometro askotan- hainbeste zeresan ematen ari den gai horri buruz. Gure ustez, "atez atekoak" ez du bizi kalitatea eta ingurumena zaintzen, edo ez, behintzat, guk proposatzen dugun sistemak beste. Mozioan bada beste esaldi bat honela dioena: Debagoineneko Mankomunitatean urteak damaratzakigu gure hiri hondakinak bildu eta Sasietako zabortegira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinek eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Horregatik, gure politika hondakindegia kentzearena izan da, hondakindegia ixtearena, eta birziklatu ezin diren hondakinak belaunaldi berriko erraustegietan erretzea energia ekoitzuz. Gu errauskailuaren alde gaude birziklatu ezin daitezkeen gauzetarako, Europako azken zuzentaraauak agintzen duen bezala. Europan, eta munduan, gehien birziklatzen eta konpostatzen duen herrialdearen eredua aztertzen ari gara gu. Munduan gehien birziklatzen eta konpostatzen duten herrialdeak gehien errausten dutenak direlako (Austria, Alemania, Holanda). Eta horretarako, Mikel Weltzinek, Alemaniako berdeen buruzagiak, txosten batean jasotako datuak ekarri dizkizuet (grafiko bat erakutsi du). Hemen (grafikoa seinalatuz), Europako ia herrialde guztiak daude, hemen argi eta garbi islatzen da gehien birziklatzen eta konpostatzen duena gehien errausten duena dela, energia sortuz, bide batez. Errauskailuak Paris, Viena edo Copenhage bezalako hirietako ibilibide turistikoen barruan daude sarri. Ez dute uste Europako herrialdeetan jendea bere teiliatuaren aurka harrika egitearen alde egongo denik. Horrela, adibidez, Parisen bada bat Eiffel dorretik hamar minutura. Aurrerago, honako hau esaten da: Eskoriatzarrok arazo bat dugu hondakinakin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %30era iristen, %90 birziklagarria denean. Eta, zer? Eskoriatzarrek dute horren errua? Non da udal batek edo edozein erakunde publiko aginpidedunek egin beharreko pedagogia? Azken 4 agintalditik ezker abertzaleak 3tan agindu du; gero, bere pedagogia faltagatik, erantzunkizuna herriarrei egozteko. Hortik*

*zehar entzun da Eskoriatza (edo eskoriatzarrek) dela bailara guztian edo mankomunitatean gutxien birziklatzen den tokia. Orduan, zer egin dugu ezker abertzaleak agindu duen udal honetan, hemen eta bailara osoan birziklatze maila alda dadin, birziklatzea hobetu eta igotzeko? Orain, errua herriari edo sistemari botatzen zaio? Horrela konpontzen dira gauzak? Ikus daitekeen bezala, batzuen kultura politikoa ez da asko aldatu. % 90 birziklatu beharra dago. Gezurra! Gauza bat da batu beharreko zaborra gaika batzea eta gaika batze horretan % 85era iristea, baina, horrek prozesu bat du, eta prozesu horren amaieran % 30 ez da birziklagarria. Azkenean, modu batera edo bestera jaso, kontua da zenbat birziklatzen den. Eta gaur egun, nolabait esatearren, Austrian, gehien birziklatzen den herrialdean, gehienez ere % 70a birziklatzen da. Orduan, horren aurrean, irtenbide bat eman behar da zaborra kentzeko, eta zuen sistemak ez du irtenbiderik ematen, ez bada hondakindegien alternatiba edo basuren turismoarena. Zaborra urrutti bidaltzea Soriara, Burgosera, edo, oraindik, urrutirago, Iparraldera edo Nafarroara, da zuen irtenbidea. Hori nazio eraikuntza ederra da. Norberaren kakak eta zaborrak besteei bidaltzea. Zero zaborraren filosofia ez da posible, eta beharrezkoa da birzikla ezin daitekeen % 30 horri irtenbidea ematea, zuen konponbideak ematen ez diona. Horregatik, gure sistema bere garaian honen aurka egon ziren berde erradikalek bultzatzen dutena da. Hemen badira Winfriend Kretschamn alemanak emandako konklusio batzuk, eta honako hau dio (hitzez hitz transkribatzen den testua irakurtzen du):*

*Alemaniako berdeen lagunzaile zientifikoak, Michael Weltzin jaunak, ESWET (Brusela, 2010eko urriaren 11) kongresuan aurkeztutako txostenean jasotako ondorioak. Bertan islatzen dira hondakinen kudeaketa politikei buruzko alemaniako berdeen bilakaera eta gaur egungo jarrera.*

- Gehien birziklatzen duten eta konpostatzen duten herrialdeak zikloari amaiera emateko, energia sortuz, errauskailua gehien erabiltzen dutenak dira.*
- Hondakinak eta birziklatze kuotak saihestea ezin da izan nahikoa hiri hondakinekin lotutako arazoak konpontzeko. Hori konponbidearen zati integral bat besterik ez da.*
- Birziklajeak mugak ditu, adibidez, plastikoak (guztiak ez dira birziklagarriak), pixohialak bezalako produktu higienikoak eta beste batzuk.*
- Produktu birziklagarriak ere hondakin bihurtzen dira erabili ondoren, infrabirziklajea edo “dowcycling” bezala ezagutzen dena.*
- Hondakinak errausteko erabilgarri dugun teknologia aurreratuena erabiltzeak eragin gutxiago du ingurumenean eta kliman hondakindegiaik baino.*
- Ingurumen konpromisoa baldintza garrantzitsua da errausketa teknologia garbiagoak garatzeko.*

Hori irakurrita, jarraitu du: horiek dira konklusioak. Gizartearen kontzientziazioa pedagogia sozialaren bidez defendatzen du, edukiontz marroiak, 5. edukiontzia zabor organikoa biltzeko, birziklatzea handitzea, konpostatzea handitzea, eta birzikla ezin daitekeen zaborra teknologia aurreratuko errauskailuen bidez erretzea energia sortuz. Horrekin batera eskatu gura dugu, eta ez dugu aukera hau galtzerik gura, alde batera utziz “parte hartze” moduko eufemismoak, edozer jarri aurretik, pertsonen bizimoduan, herriko estetikan eta pertsonen intimitatean aldaketa handia ekarriko duen eta hainbeste kezka sortzen ari den gai batei buruzko kontsulta bat egiteko. Ez dugu erantzun gabe utzi ere mozoan esaten dena, edo batzuen ezjakintasunaren aurrean informaziorik eman gabe utzi mozo honetan Europako Parlamentuari buruz zehazten dena. Europako Parlamentuak gaur egun martxan dauden hondakindegiaik eta errauskailuak 2020rako ixtea erabaki du, eta birziklatu ezin diren gaiei dagokienez, gai birzikla ezinak erretzeko erabiltzen diren teknologia aurreratueneko errauskailuak martxan jarraitzea ahalbidetzen du. Bestela, ez luke zentzurik izango proiektuan dagoen errauskailu batek zuek galdu nahi duzuen Europako bankuko lagunza bat izatea. Horregatik BILDURI, GARARI eta antzekoei eskatzen diegu ez denik ez esatea. Eta behin eskatzen hasiz gero, “atez atekoaren” defendatzaileei eskatzen diegu besteon propagandarik ez apurtzeko eta jarritako lekuak uzteko, egia baldin bada ziklo berri batean eta kultura politika berri batean sartu direla. (Alkate jaunaren eta Leire Urzelai zinegotziaren hitzei erantzunez) Bitxia! Orduan, gaur hemen ez ohiko udalbatzarrean gaude, erabaki bat ez den zerbaitetan, horri buruzko erabakia ez den zerbaitetan. Eta, noiz erabaki behar da? Etorriko dela? Noiz izango da? Hona mozo baten bidez, edo ez dakit zer bidez ekartzen da, bakoitzak jakingo du zer eta zertarako, baina, horretarako ez ohiko udalbatzarra?

Mozio bat aurkezteko eta benetako erabakia etorriko dela esateko? Mozioak lehen eztabaideatu ditugu ohiko udalbatzarretan. Zehazki, Jose Luisen aurkeztutakoak gogoratzen ditut, sozialisten mozioaren aurka zuek proposatutako mozioa ere gogoratzen dut, bertan esaten zenuten guztiaren artean konponbidea lortzen saiatuko ginela eta horrelako gauza orokorrak. Baino, mozioa bat eztabaideatzeko ez ohiko udalbatzarra? Eta, noiz hartu behar da erabakia? "Ez dugu beldurrik". Beldurrik ez baduzue zergatik ez duzue kontsulta bat egiten? Ez da izango, ba, zuetako askok horrelakorik ez egiteko esaten dizuetelako, horrelakorik ez egiteko eskatzen dizuetelako? Kontsulta bat egiteko beldurra duzue? Jakina ez duzuela inolako beldurrik sistemaren abantailak azaltzea, zer ondo dagoen esateko... sistema honek ere izango ditu bere abantailak. Baino, zergatik ez duzue egiten? Beste herri batzuetan ez dakit zer egingo duten, baina, otsailean edo martxoan, uste dut Asteasun izan zela esaten zutela ez zela erabakirik hartuko kontsulta egin gabe. Kontua erabaki bat hartzeko ez bada, eta BILDUK gehiengoa duen 30 udaletako alkate biltzen badira eta gipuzkoarroi esaten badigute erabaki bat hartuko dela - Eskoriaztaren kasuan maiatza inguruan- eurek egindako egutegi horretan, eta gero, mozio bat baldin bada eta erabakia beranduago hartu behar bada, zertarako balio du egutegi bat egitea? "Politizazioa", kontuz! Hori lehendik dator. Hori gutxienez Roman Sudupe Diputatu Nagusia zenetik dator, eta ordutik pasa dira urte batzuk eta agintaldi batzuk. Eta proiektu horrek, iritsi den lekuraino iritsi arte, traba asko igaro behar izan ditu eta traba asko gainditu behar izan ditu. Politizatzen dugula? Niri iruditzen zait errauskailuaren inguruan... eta askotan, errauskailua zentral nuklear bat bailitzan hartzen da, zuk egin duzun bezala zure arrazoibidean, hori bandera bezala hartuta Kataluniara joan zineten, edo Italiara, nonbaitera, eta munduko arazo guztiak konponduko dizkigun sistema bat ekarri zenuten, panazea izan behar dena; eta hori ekarri zen, eta hori erabili zen orduan oposizioa egiteko; hau da, politizazioa nork hartu du banderatzat eta nork egin du aurrera horrekin... Uste dut orain zulo batean sartu zaretela eta kontua da zulo horretan errauskailuaren aurka jarri zaretela eta politizazioa, zehazki, pertsona jakin batzuk egin dutela. Orain gertatzen dena da oposizioan zeundetenok orain agintean zaudetela eta agintean zeudenak orain oposizioan daudela, eta orain errua besteei botatzen ari zaretela. Hau da, hemen, EAJ-k proposamenak egiten zituenetan, errua EAJ-k zuela, eta orain, oposizioan dagoenean, errua duela guztiz politizatuta dagoen gai bat politizatzeagatik: "errauskailua". Barkatuko didazu, Beñat, baina, Kanpazarkoa Zubietako errauskailuarekin konparatzea, horrek izen bat du: demagogia. Demagogia. Denok genekien zer zegoen Kanpazarren. Eta aipatu dituzun ikerlan eta txostenak, ba, bai... guk ere ezagutzen ditugu eta ados gaude. "Europako parlamentua". Zer esan du Europako parlamentuak? (pare bat orri erakutsiz honakoa esan du) Europako parlamentuko webgunetik aterata dago: Europako parlamentuak hondakindegia eta gai birziklagarrien errausketa pixkanaka-pixkanaka kentzea eskatzen du. Neurri hori onartu dutenen artean gure ordezkarria Itziar Bilbao dago; eta zuek hasi zarete zuen komunikabideetan eta zuen bozgorailuetan zabaltzen guk European errauskailuak eta hondakindegia ixtaren alde egiten dugula, baina, Europak honako hau dio: hondakindegia eta gai birziklagarrien errausketa pixkanaka-pixkanaka kentzea. Eta guk esaten duguna da ahal dena birzikla dadila, ditugun datuengatik gehienez ere %70a, eta gainerakoa erre egin beharko dela, eta erre ere teknologia aurreratuko errauskailuetan erre. Eta ez baduzu sinesten Parisen, Vienan edo Kopenhagen daudenik, ba, ondo, argazkiak ekarri behar badira, ekarriko dira. Eta kontu bat, gaika sailkatzea eta birziklatzea ez da gauza bera. Eta zuek hemen, zuen mozioan honakoa diozue: gure birziklatze maila ez da heltzen % 30era, % 90a birziklagarria denean. Ez, ez da birziklagarria. Bueno, ez dakit. Ikusiko dugu. Bihar edo etzi plan alternatiboren bat etorriko balitz, eta horrela izan, nik konpromisoa hartzen dut mozioa bat jartzeko eta bertan esateko: % 0a birziklagarria zen, oker geunden. Eta gero, beste kontu bat: "atez atekoa" zaborra jasotzeko modu bat da, udalaren eskumena dena, dudarik gabe. Baino, zaborra jasotzeko modu bat da. Onena da atez atekoa eta errauskailua bateragarriak direla. Eta zuek, lehen aipatu duzun politizazioarekin, atez atekoa errauskailua ez jartzeko irtenbide bezala eskaini nahi duzue. Eta, ez da horrela: ez didazue ezer esaten hondakindegia ixtaren politikarekin. Jakina, gu ere horren alde gaude eta uste dugu aurreko agintaldian gaur egun itxita dauden hondakindegia itxi zirela. "Antzuolako datuak". Udalak gure taldeari emandako datuek diotenez, atez atekoa

ezarri zenetik, urte betean, saldu da % 80 birziklatzen dela, eta berriz esango dut, gauza bat da birziklatzea eta beste bat gaika sailkatzea. Eta zenbaki horiek oso zalantzagarriak dira, tona kopurua ikusten bada, beharbada, 10etik 6ra pasa delako. Adibidez, atez ateko ezarri baino lehen 390.000 tona jasotzen baldin baziren, hurrengo urtean 190.000 edo 200.000 tona jaso ziren. Eta, noski, horrekin lotuta, saltzen ari zareten portzentajea dago. Orduan, hor fenomeno bat gertatzen da: zabor turismoa. Zabor turismoa % 40ra iristen baldin bada zerbaitek ez du funtzionatzen. Lortzen diren emaitzak, nik uste dut... Nik ere, orain dela gutxira arte, ez nuen ezagutzen zaborren prozesu osoa, eta orain ikasgai bat baino gehiago hartu behar izan dugu eta terminoak, espresioak eta abar ikasi. Jendeak ez dio garrantzirik ematen niretzat garrantzi handia duen kontu bati: intimitatea. Inork ez du zertan jakin behar nola bizi den bakoitza. Eta, zoritzarrez, zaborren bidez jakin daiteke bakoitza nola bizi den. Eta nik uste dut horrek ematen zaion baino garrantzi gehiago duela, esaten denarena baino gehiago, eta hori baino askoz larriagoa dela. Eta nik ez dut nahi garbiguneko batek edo ez dakit nongo batek, zaborrontzia ireki eta nire etxeen zer jaten den, ze botika hartzen den edo dena delakoa ikertzea. Eta horri, nire ustez, ez zaio behar beste garrantzi eman, baina, sistemak duen ondorioak direla. Esaten duzuenez, "ez gara hitzaldietara joan". Laster etorriko da Carlos Ormazabal, eta nik gonbidapen formalak bidaliko dizut zu etor zaitezen. Eta fair play edo joko garbia egiten duzuela esaten duzunez, ezker abertzaleko guztiak gonbidatzea nahiko nuke. Fair play edo joko garbia aldarrikatzen duzuenez, jakin ezazu guztiok gonbidatuta zaudetela, eta ni arduratuko naizela Carlos Ormazabal etorritakoan gonbidapen formalak zuk jasotzeaz. Zero Zaborraren inguruan "urratsak eman eta emaitzak hobetzea gura duzuela", bida, bai, guk ere bai. Horrekin ez diguzue ezer esaten. "Berez, ez dira hain txarrak edukiontzien marroiak" eta, horregatik kendu behar dira? Edo "eman duten emaitzak ez dira izan hain..." sistema aldatu gura bida ez dago Eskoriatzatik paseo bat eman besterik. Basurak lagatzeko bere garaian egin ziren zuloek hor diraute, edo ez dago edukiontzien gaur egungo egoera ikustea besterik. Sistema uztea gura bida, zer egiten da? Ba, edukiontzirik berriztatu ez edo dauden edukiontzien marroiak boikoteatu. (Alkate jaunaren erantzunaren aurrean honako hau esan du): lehenengo puntuaren gainean, kafe tertuliak egin direla, Antzuolara bisita egin dela eta abar, eta esaten duzu edozein kontsulta egiteko informazioa behar dela eta abar. Baino, nik Antzuolara joateari buruzko informazioa emateko edo beste ekintza batzuei buruzko Zero Zabor Plataformaren kartel batzuk ikusi ditut eta behean Eskoriatzako Udalaren logoa ikusi dut. Jakin gurako nuke beste edozein plataforma sortuz gero, eta antzeko ekintzak antolatu, Eskoriatzako Udalak bere logoa ipiniko lukeen alde bien informazio guztiori emateko eta abar... lehen aipatu duzun joko garbia egitearren. Azkenean, atez ateko datorren urteko irailean jarri behar bida martxan, azkenean, zerbait esatearren, kontsulta egiteko, jarriko luke logoa Eskoriatzako Udalak horrelako propaganda batean? Gauza asko aipatu dituzu, aurreko agintaldian izandako ordezkapen falta, jende askok ez zuela bere burua ordezkatuta ikusten, badakigu! Badakigu! Uste dut ezaguna dela gure jarrera horren aurrean. Baino, hemen, gogoratzen dut, Alkate izendatu zintuzten egunean jendearen artetik norbaitek esan zuen "Lege zaharra amaitu da eta lege berria dator". Orain lege berria dator hona esan zuen batek, uste dut olibondo arrama bat edo antzeko zerbait eman zizunak. Amaitu da lege zaharra, ematen zuen berria etorriko zela eta hemen jarraitzen du zaharrak. Zeren eta guk txarrak ginen autopistarengatik, errauskailuarengatik eta ez dakit zenbat gauza gehiagorengatik, eta supramakroazpiegiturengatik ez genuen kontsultarik egiten. Eta, zuek, eskatu, eskatu eta eskatu. A ze kasualitatea! Lege berria etorri da eta berdin jarraitzen dugu. Orduan, ez dakit zeinen bilakaera den negatiboagoa. Eta hori kontu askotan: ez zen behar bidesaririk eta orain ez dakite ezta nola asmatu ere, edo egunero ikusten ari garen antzeko mila gauza. Edukiontzia inoiz ez direla hutsik egoten esatea..., ba, aldatu! Aldatu denbora baterako, garbitzen diren bitartean. Aldatu. Ez dago borondaterik, garbi dago! Zuk esaten duzu errauskailuarekin 240.000 tona kendu daitezkeela, Gipuzkoan sortzen dena .... dela, ez dakit, ez dut kopurua gogoratzen, baina, berdin dio. Baino, zuen sistemarekin tona guzti horiek kendu gabe gelditzen dira. Denak! Zuen sistemak akatsen bat baldin badu, ez da hasieran, ez da atez ateko sistema, zuen sistemak amaieran du akatsa. Errauskailuaren aurka egitearren ez diozue bestelako konponbiderik ematen. Esaten dut, dena geldituko da, ez baitakit ze plan

alternatibo aurkeztuko den. Uste dut bihar edo etzi aurkeztuko dela. Ikusiko dugu. Zuen sistema, aurkezten duzuen bezala, hasieran onena ere izan daiteke, sailkatutako % 80a batzen delako. Oso ondo! Baina arazoa amaieran dago. Prozesuaren amaieran dago arazoa. Eta, zuen sistemarekin 240.000 tona horiek ez dira jasoko. Bainan, gizonei! Interesak! Bakoitzak bereak, Beñat, interesak, bakoitzak bereak, ez pentsa hemen interesak bakarrik besteek dituztela. Edo, Garbitania ez al da intereseko zerbait? Horretaz ari garela, horretaz ere prentsa bidez enteratu behar izan gara. Bertan agertu denez, Garbitaniak 34 udalentzat txosten bat egin zuen, edo txostena egiten ari da edo horrelako zerbait. Eta aipatzen denez, txosten bakoitzeko 12.000tik 18.000 euro bitartean dira. Ez dakit hori egia den, baina, horretaz galdetuko nizuke, zeren ez didazu esango ez dagoela interesik, eta areago, Garbitaniako gerenteak berak zuen enpresa bati esleitu zaiola ikusi dugunean. Laster hasi zarete beste batzuk egin dituzten eta gaizki eginda dauden gauza berak egiten. Oso laster hasi zarete! Zuek ekarri behar zenuten, dirudienez, lege berria, oso laster hasi zarete besteok gaizki egiten genituen gauzak egiten. Antzuolako datuak. Datu teknikoak behar dira, bai. Gehiago hitz egin beharko genuke datu teknikoei buruz, bai. Mankomunitateko teknikoen gainean. Zuk ezagutuko duzu. Mankomunitateko teknikariak atez atekoaren aukako txostena egin zuen aurreko agintaldian. Bainan, beti, komeni zaizkigun txosten teknikoak ateratzen ditugu. Kasualitatea! Mankomunitateko ingurumen teknikariak, ez dut bere izena gogoratzentz, txosten bat egin zuen, ezagutuko duzula espero dut, atez atekoaren aurka, eta bertan faktore tekniko asko aztertzen zituen (ingurumenarekin lotutakoak, ekonomikoak eta abar), eta kasualitatez, txosten tekniko hura ezkutatu egin da. Kasualitatea, ezkutatu egin zen. Badira beste eredu batzuk, baina beste eredu bat EAJ-k gobernaturako mankomunitate batean, zehazki, Itxasondon eta Lazkaon. Ez dut eredua zehatz-mehatz ezagutzen, baina, badakit puntu batean bateragarri egiten dituela atez ateko eta errauskailua. Uste dut badagoela ez dakit zer errefusa, birziklaezina, atez atekoarekin batzen dena. Horrek existitzen du, beste eredu batzuk existitzen dute, eta kasualitatez, EAJ-k ezarritakoak. Diru kontuetan ez naiz sartuko, ikusiko da sistema ezarritakoan. Orduan izango dugu aukera gastatutako diruak aurrekontuetan aztertzeo. Hala ere, hainbeste lanpostu sortzen badituzte, eta ikusirik enpresen aurrekontuen zati handi bat langileak ordaintzeko izaten dela, ba, lanpostuak sortzen baditu, ikusiko dugu. Nik, orain, ez dut eztabaidatuko diruaren gainean, aurrerantzean izango dugulako aukera datuak izateko eta horri buruz eztabaidatzeko. (Azken parte hartzea). Hondakindegia inerteak eta abar aipatu dira... Hondakindegia inerteena eufemismo bat besterik ez da, eta hondakindegia hondakindegia dira. Eta hori horrela balitz, Europatik datorren zuzentaraua betetzen ez dutenak gaur egun Gipuzkoako gobernuan daudenak izango dira. Gainera, 2016an izango da, bere garaian, 2011n, 5 urteko luzamendua eskatu zelako. Nik uste dut gure eredua beste herri batzuetan dagoena dela. Jakin gurako nuke zuen eredua non erabiltzen den, eta batez ere, prozesuaren amaierari buruzkoa. Berri aipatu da, eta Berrizen EAJ-k agintzen duela. Bainan, zuk ondo esan bezala, Berri Bizkaian dago, Bizkaia bere planifikazioa du, eta jakingo duzun bezala, planifikazioa Batzar Nagusien eskumena da. Eta, Berrizen onartu da esperientzia piloto edo dena delako bezala, baina, bai, onartu da. Bainan, hemen, niretzat, oinarrizko arazoa da zuek errauskailuaren aurka zaudetela eta guk, hain itsu egon gabe atez atekoaren aurka, ez dugula ikusten prozesuaren amaierari, birzikla ezin denari, irtenbiderik ematen diozuenik. Ez diozue irtenbiderik ematen, eta lehen azaldu dut nondik datorren politizazioa. Eta batzordeena... Begira, Leire, aspertuta nago hori argudio bezala entzuteaz udalbatzar honetan. Noski ez garela etortzen batzorde guztieta, jakina. Lehen 5 batzorde ziren, eta orain, 6, lehen gure taldean 2 zinegotzi ginen eta orain, 1. Eta, zerbait gertatuko da zinegotzi bakarra dugun 3 taldeok arazo bera dugunean sarritasunez etortzeo. Ez gure eginbeharra ez dugulako jarraitzen, baizik eta, zorionez edo zoritzarrez, beste konpromiso batzuk ditugulako. Batzuk ez dugu dirurik kobratzen Udaletxetik. Eta, show bat. Udalbatzarra ez da show bat, udalbatzarra publikoa da eta ondo egongo litzateke Euskal Herrirako demokrazia horretan dena batzordetan eztabaidatzea jendaurrean eta gero, udalbatzarrean, denok amen esatea guztiari. Eta gai honekin ordu bete baino gehiago daramagula... ez zait gehiegiz iruditzen gai garrantzitsua dela kontuan izanik, eta denbora hori garrantzi horren isla baldin bada. Niri, elizateen taldearen jarrera bitxia

iruditzen zait. Esaten dute abstenitu egiten direla politika kontuetan eta ez dira abstenitzen Gipuzkoan politizatuen dagoen gaian. Sarri askotan esaten dute baserrietako jendeak hainbat ikuspuntu duela, eta gero, Gipuzkoan gaur egun politizatuen dagoen gaian alde baten alde egiten duzue.

Eztabaidea amaitu ondoren, bozketa egin da, eta, Urrutia jaunak, Iregui andreak eta Cantero jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, mozioa ONARTU DA.

#### **4.- Deialdiko gai zerrendan hainbat gai sartzea berresteoa.**

Urrutia jaunaren eta Cantero jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideen aldeko botoekin, ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea berretsi da:

5.- Zinegotziak karguari uko egitearen berri izatea.

6.- Zinegotzi karguari hautagai hautetsiek aurkeztutako uko egiteen berri izatea. Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) taldearen hautagai berria proposatzea.

Urrutia jaunak eta Cantero jaunak euren abstentzia justifikatu dute esanez gaia hurrengo ohiko bilkuran aztertu zitekeela. Idazkariak jakinarazi die Hauteskunde Batzorde Zentralaren instrukzioaren arabera, karguari uko egiteko idazkia aurkeztuta, Udalbatzarra hurrengo 10 egun naturalen barruan deitu behar dela, eta idazkia maiatzaren 31n aurkeztu zela.

#### **5.- Zinegotziak karguari uko egitearen berri izatea.**

Leire Urzelai Letona andreak 2012ko maiatzaren 30ean (sarrera erregistroko zenbakia: 991) sinatutako idatzia ikusi da. Leire zinegotzi hautatu zuten Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiko zerrenda politikotik azken udal hauteskundeetan, eta idatzi horretan, bertan azaltzen dituen arrazoiengatik, Udalbatzar honetako kide izateari uko egiteko asmoa adierazten du.

Kontuan hartu dira Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 9.4 artikuluan eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 15.2, 19.1.I) eta 182. artikuluetan ezarritakoak eta horiekin bat datozen gainerako arauak, bereziki, Hauteskunde-Batzorde Zentralak tokiko ordezkar-karguak ordezkatzeari buruz 2003ko uztailaren 10ean emandako instrukzioa.

Leire Urzelai Letona andreak Udal honetako zinegotzi karguari uko egitearen berri izan du Udalbatzarrak, eta agintzen du erabaki honen ziurtagiria bidaltzeko Hauteskunde-Batzorde Zentralari, dagokion hautagaiaik hautetsi izaera egiaztatzeko egiaztagutuna eman dezan.

#### **6.- Zinegotzi karguari hautagai hautetsiek aurkeztutako uko egiteen berri izatea. Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) taldearen hautagai berria proposatzea.**

Udalbatzarraren bilkura horretan Leire Urzelai Letona andreak Udal horretako zinegotzi karguari uko egin izanaren berri izan du Udalbatzarrak.

Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiaren azken udal hauteskundeetako zerrenda politikoko ondorengo hautetsi hautatuek sinatutako idazkiak ikusi dira.

#### HAUTETSI HAUTATUA

#### Sarrera erregistroko zenbakia

Maite Uribe Echevarria Aramburuzabala	1001
Joseba Errasti Otaño	1002
Francisco Javier Otamendi Zabala	1003
María Luisa Fernández de Arroyabe Urcelay	1004
Carmelo Oñate Akizu	1005
Maria Aranzazu Ugart Echeverria	1006
Domingo Azpitarte Izaguirre	1007
Maria Dorleta Urrutia Orobengoa	1008

Kontuan hartuta guztiek adierazi dutela zinegotzi kargua hartzeari uko egiten diotela, ez da gelditzen ordezko hautagai gehiagorik Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiaren zerrendan.

Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluan jasotakoaren babesean, Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiak IGOR EZPELETA OREGUI jauna proposatzen du ordezkotzat.

Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 182. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako arauetan ezarritako kontuan izanik, Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiko zerrendako ordezko hautagaien uko egitearen berri du Udalbatzarrak, eta agintzen du erabaki honen ziurtagiria bidaltzeko Hauteskunde-Batzorde Zentralari, azken horrek Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) alderdiak proposatutako ordezkoari, IGOR EZPELETA OREGUI jaunari, hautetsi izaera egiaztagatzeko egiaztagutuna eman diezaion.

*Bildu-Eusko Alkatasuna (EA) / Alternatiba Eraikitzen (EA-ALTERNATIBA) taldeak bere hautagaia proposatuta, Urrutia jaunak galdu du ea aurreko agintaldian Juan Carlos Bengoak bere karguari uko egin zioenean jarraitutako tramite berak jarraitu diren. Idazkariak baietz erantzun dio.*

## **7.- GALDE-ESKEAK.**

### **7.1.- UDAL ARTXIBOAN IZANDAKO GERTAKARIA**

Urrutia jauna: Nor da artxiboaren arduraduna?

Alkate jauna: Uste dut beste behin erantzun geniola galdera horri. Edurnek esan zuen bera, idazkaria denez, dela azken arduraduna.

Urrutia jauna: Eta, herritar bat zapatu batean baldin badator, eskubidea du, ez?

Alkate jauna: Esan zen beharrezkoa zela Udaleko pertsonaren bat egotea eta protokolo bat jartzeko ginela. Oraindik ez dugu egin, baina, egingo dugu.

Urrutia jauna: Eta arduradun hori, makila bategaz armatuta joaten da norbait larunbatean datorrenean?

Alkate jauna: Ez dut uste, ez.

Urrutia jauna: Jakin izan dut gertakari nahiko desatsegin bat izan dela eta hori ikertu dezazula gurako nuke, Beñat.

Alkate jauna: Ez dakit udalbatzarrean berba egin gura duzun, edo udalbatzarraren ondoen berba egin dezakegun gaiari buruz. Eta ikertuko dut.

Urrutia jauna: Ez, ez dut udalbatzarrean esango, baina, herritar bat zapatu batean etorri zen artxibora, eta udal arduradun bat, zerbait idatzita zeukalako edo ez dakit zer, makila batekin agertu zitzaion. Dirudienez, arduradun horri ez zion inolako graziarik egin herritar horrek bere garaian idatzitako zerbaitek.

Alkate jauna: Nik ezagutzen dut kasu bat, orain ez dela asko gertatutakoa, agintaldi honetan gertatu zena. Udal itxita zegoela, bertako langilerik gabe, inolako arduradunik gabe bertan, zinegotzi bat etorri zen udaletxera paper batzuk hartzera ezkontza zibil bat zuelako, eta zarata batzuk entzun zituen. Eta susto handia hartu zuen, ez dakit makilarik zuen edo ez. Baina, ez dut uste besteak zerbait idatzita zuelako izan zenik, baizik eta ez zuelako inor udaletxeen aurkitzerik espero, eta susto handia hartu zuelako.

Urrutia jauna: Ba, esan beharra daukat alkate izandakoa dela, eta horrela hartu zuena ez dago zugandik oso urruti.

Alkate jauna: Uste dut kasu beraz ari garela; baina, zuk uste duzu herritar bat, nahiz eta aurreko agintaldian alkate izan, gure artxiboan egon daitekeela bera bakarrik? Uste duzu normala dela bera bakarrik egotea udaletxean? Orduan, zer esan nahi duzu? Zapatuetan zabalik utzi behar direla udaletxeko ateak nahi duena sar dadin....

Urrutia jauna: Uste dut aurrez esanda zuela etorriko zela eta horrelako harrera egin zitzaiola.

Alkate jauna: Uste dut egokiena artxibora sartzeko protokolo bat egitea dela.

## PABLO URANGAREN MARGOAK ZALDIBAR ANTZOKIAN

Urrutia jauna: bere garaian, zineko obretan, Pablo Urangak egindako margoak zeudela- eta, bazen horien garrantzia, garrantzi artistikoa defendatzen zuenik... Jakitea gurako nuke horren gainean zerbait egin ote den, gaia zertan dagoen, zenbateraino egin zaion kasu.

Alkate jauna: uste dut obren lehenengo fasean, aurreko agintaldian egin zena, pinturak errespetatuz egin zirela obrak. Gaur egun, pinturak sabaiaren gainetik daude. Egia esan, eta esan didatenez, ez dute balio handirik, baina, pinturak, nik ez ikusi arren, hor daude.

## LEIRE URZELAI ZINEGOTZI OHIAREN ESKERTZA ETA AGURRA

Urzelai andrea: lehen ez dut aukerarik izan ezer esateko dena oso azkar joan delako. Kargua utzi dut, nire egungo egoerarekin ezingo diodalako behar duen denbora guztia eskaini. Udal honetan langileei eta teknikariei eskerrak eman gura dizkiet, batzuekin beste batzuekin baino harreman gehiago izan arren, batzorde batzuetara gehiagotan joan naizelako. Baina, guztiekin harreman ona izan dut, eta Enrikerekin ere gogoratzen naiz, ez duelako lan erraza gaurko plenoak bezalakoak itzultzen. Bueno, eskerrik asko guztioi, eta bereziki, gobernu taldeko kideei, batzuetan ados jarrita, eta besteetan ados jarri gabe, aurrera jarraituko duzuelako. Mankomunitateko teknikariak ezagutzeko aukera ere izan dut, eta baita beste udal batzuetako zinegotziekin lan egiteko zortea ere. Guztiei nire esker ona. Zuei, jarraitzen duzuenoi, zorte on! Udal honetako gobernu taldeak buru ona du eta bertako kideak oso langileak dira, aurrera! Nik besteardean jarraituko dut. Eskerrik asko!

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura zortziak eta berrogei minututan. Eta nik, Idazkaria, egiaztatzen dut.**

### 1.- Acuerdo sobre alegaciones interpuestas por el grupo municipal EAJ/PNV a la aprobación inicial de la modificación del Reglamento Orgánico Municipal y sobre enmiendas presentadas por el concejal Iker Akizu al dictamen de la comisión informativa de Personal y Gobernación.

En sesión de fecha 27 de diciembre de 2011, el Ayuntamiento en Pleno acordó aprobar inicialmente la modificación del Reglamento Orgánico Municipal en los términos que constan en el expediente.

Dicho acuerdo fue sometido a información pública mediante anuncio publicado en el BOG nº 2, de fecha 3 de enero de 2012.

Dentro del plazo de exposición pública se presentaron alegaciones a instancia del Grupo Municipal de EAJ-PNV .

El 20 de marzo de 2012 la Comisión Informativa de Personal y Gobernación emitió dictamen sobre las alegaciones presentada por el Grupo Municipal de EAJ-PNV.

El 17 de abril de 2012 el concejal Iker Akizu presentó una serie de enmiendas contra el dictamen de la comisión informativa de Personal y Gobernación.

Todos los corporativos presentes han dispuesto, junto con la convocatoria, del dictamen emitido por la comisión informativa de Personal y Gobernación en relación a las alegaciones interpuesta por el grupo municipal EAJ/PNV a la aprobación inicial de la

modificación del ROM y en relación a las enmiendas presentadas por el concejal Iker Akizu al anterior dictamen.

El Alcalde, antes de someter ambos dictámenes a votación, concede la palabra para que, quien así lo estime oportuno, haga las manifestaciones que estime procedentes.

